

Yohann Floch

HorsLesMurs-eko nazioarteko harremanetarako arduraduna
Circostrada Network europar sarearen koordinatzailea

“Europako kale-artearen egoera eta Circostrada Kale Arteen Europako Elkartearen aurkezpena”

Eskerrak eman nahi dizkiet Artekale elkartekoei eta Umore Azoka jaialdiaren antolatzaileei topaketa profesional honetan parte hartzeko gonbita egiteagatik. Lehenengo eta behin, nire burua aurkeztuko dut eta, ondoren, iaz Europako Parlamentuari eman nion *Street Artists in Europe* ikerketari buruz hitz egingo dizuet.

Circostrada Network Europa mailako plataforma bat da, kale arteei eta zirkuko arteei buruzko informazioa biltzeko, ikerketak egiteko eta arte horietako profesionalen arteko trukeak bideratzeko helburuak dituena.

Sareak arte esparru horietako profesionalak informazioa eta baliabideak lor ditzaten laguntzen du. Horretarako, Europako profesionalen arteko topaketak eta lankidetzak ahalbidetzen ditu, eta haiekin batera, arte forma berri horiek ezagutzera emateko ekintzak eginez.

Aurreikusten dugu garapen eta egituratze lan hori epe luzekoa izango dela. Beharrezkoa da lankidetzak proiektuak iraunkorrak izaten laguntzea; izan ere, askotan, proiektu ahulak dira, finantzaziorik lortzen ez dutelako, gauzatzeko zailtasunak dituztelako, eta arretarik egiten ez zaielako.

Hori dela eta, epe luzera egiten dugu lan, hausnarketa eta *lobbying* ekintzen bidez. Helburu hauek ditugu:

- > Kale arteetako eta zirku arteetako profesionalen jardunearan dauden programetan sartzea erraztea: talde artistikoetan eta teknikoetan, profesionalen taldeetan, atzerriko egonaldietan, artelanak esportatzeko diru laguntzen programetan, etab.
- > Sektore horietarako laguntza programa espezifikoak (mugikortasun teknikoak, dekoratu espezifikoak eta karpak, ekoizpena, etab.) sorrera garatzea.
- > Kale eta zirku arteen esparruko operadoreei laguntza programei buruzko informazioa ematea.

Circostrada Networkek hiru ardatzetan antolatzen du nazioartean egiten duen lana. Hona hemen ardatzak:

- > Baliabide eta informazio ardatza, kale eta zirku arteei buruz dagoen informazioa (artistak, konpainiak, jaialdiak, lan egiteko lokalak, hedapen lekuak —besteak beste, jaialdiak—, artikulua eta liburu espezializatuak, etab.) biltzeko eta banatzeko. Horri esker, Europako datu basea eguneratu eta sektoreentzat baliagarriak diren baliabideak argitaratzen dira, web guneaz eta e-newsleterrez gain.
- > Ikerketa eta behaketa ardatza, gure sektoreei buruz aritzen diren ikertzaileen arteko ikerketak, mahai inguruak eta harremanak koordinatzeko. Horrenbestez, adituek txostenak egiten ahalbidetzen dugu, baita aurretik egindako edo egiten ari diren lanei balioa ematen.
- > Profesionalen arteko topaketen ardatza, kale eta zirku arteen esparruko kultur operadoreen (ekoizleak, artistak, berriemaileak, erakundeetako ordezkariak eta Europako sareak) arteko topaketak antolatzeko. Hona hemen helburuak: gure sektoreen arazoak berri ematea, proiektu transnazionalak sortzen laguntzea eta arte diziplina horiek gero eta ezagunagoak eta onartuagoak izaten laguntzea.

2007ko martxoan, Europako kale artistei buruzko txosten bat eman genion Europako Parlamentuko Kultura eta Hezkuntza Batzordeari (Batasuneko Barne Politiken Zuzendaritza Nagusia – Egitura eta Kohesio Politiken Sail Tematikoa). Txosten horretan, zenbait gomendio egiten genituen, sektore artistiko hori Europan hobeto garatzen laguntze aldera.

Ikerketa horren helburu nagusia kale artisten egoera aztertzea zen, ahal dela 27 herrialde kideetako artistak kontuan harturik. Arteek gune publikoan duten garrantzia eta sektore horren ezaugarriak baloratzen saiatu gara (eta arrakastaz, espero dut).

Ikerlan horren emaitzak ikerketa estetikoetan eta sozialetan oinarrituta daude. Horrez gain, osagarri gisa, kale artisten testuinguru ekonomikoari, politikoari eta kulturalari buruzko inkestak eta elkarrizketak ere egin ditugu, honako hauek kontuan harturik: kale eta zirku arteen diziplina aniztasuna, gizarte eta hiri inplikazioa, eta hurbiltzen den publikoa.

Sektore horietako profesionalak zazpi ahalak egin zituzten ikerketa hori egin genezan laguntzeko: informazioa eman zuten, galderei erantzun zieten, banakako elkarrizketetarako zein *focus group* setan parte hartzeko prest agertu ziren. 80 egun baino ez ditugu izan ikerketa hori egiteko, sektorearen gaur egungo egoera ahalik eta zentzurik zabalenean aztertzeko eta Europako arduradun politikoei bidaltzeko.

Ikerketa doan kontsulta daiteke Interneten, ingelesez eta frantsesez. Laster, frantsesezko bertsioa behera kargatzeko aukera egongo da. Europako Parlamentuaren eta Circostrada Networken web guneek emango dute aukera hori. 2007ko abuztuaren

27an, eskatu bezala, ikerketaren emaitzak eta zenbait gomendio aurkeztu zitzaizkien eurodiputatuei. Ikerketak eta hartatik atera daitezkeen ondorioek eta aldarrikapenek oso harrera ona izan zuten. Egun hartan Parlamentuan zeuden eurodiputatuak interes handia agertu zuten. Garrantzitsua da gaur ohar positibo horrekin hastea. Europar Batasunaren bultzada benetako abiapuntua izan daiteke. Gogoan izan kultur arduradunek, askotan, Batasunaren immobilismo handia eta konplexutasuna gaitzesteko ohitura dutela. Europar Batasunak erantzun zehatzak eman diezazkieke gure sektorean sortzen diren galderari.

”Definizio” hitzak beldurra ematen die kale arteetako zenbait pertsonari. Ez dute nahi inork beren lana muga estetikoaren barruan ixtea, horrelako mugek denok babesten dugun diziplinartekotasuna murrizten baitute. Beraz, arazo bat dugu: sektorearen definiziorik eza. Askotan, definizio bat edo batzuk aurkitzearen garrantzia gutxiesten da: Nola susta dezakegu sektore baten garapena, haren mugak, edukia, historia eta protagonistak zein diren jakin gabe? Nola inplika ditzakegu arduradun politikoak kale arteen egituraketan eta profesionalizazioan, ezin baditugu gune publikoan emateko diseinatzen diren proiektu artistikoak definizioen bidez bereizi? Horren guztiaren ondorioz, sektorearen berezitasunak alde batera uzten dira, eta horrenbestez, sektorea zeharo galdua dago ikuskizunaren esparru zabalean.

Street Artists in Europe ikerlanean, David Micklem-ek (Street Arts Healthcheck, Arts Council England 2006) proposatutako definizioari ekin diogu, eta hura zabaldu, Europako errealitateen aniztasuna sartze aldera. Definizio hori oso luzea eta xehatua da. Gaurkoan, hiru elementu zehatz soilik gordeko ditugu gogoan: alde batetik, kale arteek, izaeraz, hizkuntza artistiko guztiak hartzen dituzte: antzerkia, dantza, musika, opera, arte ederrak, multimedia, etab. Beraz, sektore horren ezaugarri nagusia sormen ekintza egiteko lekua da, antzezpen lekua —gune publikoa—, eta ez erabiltzen diren teknikak edo hizkuntzak. Gune publiko hori plaza bat izan daiteke, edo eliz atari bat, zelai bat, etorbide bat, fabrika abandonatu bat, metroa...; alegia, ohi ez bezala erabiltzen den leku oro izan daiteke (betiere, haren ohiko funtzioa ez bada ekintza artistiko bat hartzea). Azkenik, kale arteek harreman berezia ezartzen dute publikoarekin. Hirugarren mahai inguruko parte hartzaileek horri buruzko azterketa zehatzagoa egingo dute, beren esperientziei eta egiaztapenei esker.

Aintzat hartzea jaio berri den haur bati izena ematea bezalakoa da. Halaber, aintzat hartzea zerbaiti balio jakin bat ematea da. Gaur egun, zenbateko balioa ematen diete kale arteei arduradun politikoek, intelektualek eta artistek beraiek? Erantzuna begi-

bistakoa da: kale arteei ez zaie inondik inora ematen beste sektore artistikoei ematen zaien balioa.

Sektorearen definizioan leku publikoetan garatzen diren forma artistiko guztiak —hau da, erakundeek eta intelektualek dagoeneko onartzen dituzten sektoreak— sartzen saiatzen bagara, orduan aztertu ahal izango dugu zergatik den txikiagoa gune publikoko sorkuntzen onarpen maila. Zelaigune batean antzezten duen aktoreak antzoki batean baino txarrago egiten du? Soprano batek kaskarrago abesten du kalean operan baino? Ez, galdera horien erantzuna nahikoa adierazgarria da.

Horrenbestez, bila dezagun beste alde batetik: Ekintza artistiko baten balioa hura egiteko inbertitutako diru zenbatekoaren arabera da? Beste modu batean esanda: Aintzatespen kontzeptua finantza interesak daudenean agertzen da? Ez. Aintzat hartzeko prozesuek adierazten dutenaren arabera, proiektu baten edukiak eta artistaren asmoak zehazten dute haren ibilbideari ematen zaion balioa.

Iturrira itzuli beharko dugu agian: *kale* arteak. Antzeppen lekua da kale arteen legitimotasun faltaren kausa? *Kalean* egoteak artearen munduko eraikin ofizialetatik (antzokiak, operak, koreografia zentroak, museoak, etab.) *kanpo* egotea esan nahi du. Horrek esan nahi du kale artistak gobernuek edo lurralde erakundeek diruz lagundutako urrezko jauregietatik kanpo daudela, interpelatzen duen publikoaren aurrean elitista agertzen den kultura bateko harribitxietatik kanpo daudela. Beraz, badirudi ekintza artistikoaren legitimotasuna ez dela edukiaren arabera neurtzen, edukitzailearen arabera baizik... Ona da prestigioeko lekuetan aurkezten diren forma artistikoetan soilik interesa izatea? Hipotesia probokatzailerik da, baina ez interesgarria. Zaila da aintzatespen falta horren jatorriak zehaztea, eta zuetako bakoitzak du bere erantzunak buruan erabiltzeko aukera.

Zergatik da hain garrantzitsua politikarien eta erakundeen aintzatespena lortzea? Zergatik borrokatzen dira kultur operadoreak dantza, antzerki eta opera sektoreen aintzatespen bera izateko? Kale arteak garapen bidean daudelako beti. Aberastasun handia du sektore horrek (estetika, eragina tokiko ekonomian eta gizarte kohesioan, ikusle kopurua, etab.), baina, aldi berean, ikaragarri ahula da (kalitate artistiko aldakorra, profesionalen ezegonkortasuna, jaialdien fenomenoak, etab.).

Kale artistek prestakuntza behar dute, baina, gaur egun, ez dago hasierako prestakuntzarik Europan. Artistek kalitatezko ikuskizunak egin nahi dituzte, baina ia ez dago sorkuntza, egoitza eta ekoizpen zentrorik, eta horrez gain, oso gutxitan ematen diete diru laguntza. Askotan, ezin dituzte beren herrialdeetako diru laguntzak edo beka pertsonalak jaso. Kale artistek atzerrian antzeztu nahi dituzte beren lanak, baina nekez

lortzen dute, jaialdietan izan ezik. Europa barruan eta Europatik kanpo mugitzea zaila da oraindik ere, arazo tekniko eta administratibo ugari baitaude.

Aintzatespenik gabe, ezinezkoa da kale arteen berezitasunak aintzat hartuko dituzten kultur politikak imajinatzea. Onarpena beharrezkoa da, baita tresna eta baliabide berriak ere. *Street Artists in Europe* ikerketan galdetutako artista eta profesional guztiek honako hau adierazi zuten: beharrezkoa da arduradun politikoak zehatz-mehatz jakitea kale arteek Europan zer-nolako garrantzia duen; jakin behar dute garrantzi handia dutela. Beste modu batean esanda, ikerketa zentroek eta behatokiak (nazio mailakoak nahiz tokikoak) egiten dituzten ikerketa kualitatibo eta kuantitatibo guztietan, beharrezkoa da kale artistak ere aintzat hartzea, estatistiketan eta sorkuntzarako edo funtzionamendurako laguntza publikoen banaketan kontuan hartzea, unibertsitateko ikasleek leku publikoetan egiten diren sorkuntza lanak aztertzea...

Ikerketa horretan zehar egiaztatu ahal izan dugunez, kale artistak federatuta badaude (bai toki mailan, bai nazio mailan), handiagoa da sektorearen garapen maila (beste sektore batzuetako profesionalen kasuan bezala). Denon interesak aldi berean defendatuz, indar handiagoa lortzen da, baita erantzun eraginkor gehiago ere, Erresuma Batuan, Frantzia, Italian, Irlandako Errepublikan eta Belgikan egindako ekintzek adierazten dutenez. Europar Batasuneko herrialde kideetan emanaldiak egitea, tokiko sareak eta informazio eta baliabide zentroak sortzea (edo sail espezializatuak sortzea, arte eszenikoen zentrorik handienetan), arduradun politikoei hizketakide egokiak (eta sektoreari buruzko ahalik eta informazio gehien emango dietenak) aurkitzen laguntzeko, aintzatespen handiagoa errazteko, eta komunikazio arinagoa eta politika erreaktiboagoa lortzeko.

Egin beharreko bide horretan, Europar Batasuna oso aliatu ona izan daiteke: artisten estatutua landuz, kulturako profesionalen mugikortasuna aintzat hartuz, ikuskizunen zirkulazio hobe bermatuz eta zainduz, Europar Batasuneko herrialde kideen arteko lankidetzaren bideratuz (Kultura 2007-2013 programaren bidez, bereziki), Europak zenbait oztopo gainditzen lagun diezaguke. Europak tresna eraginkorra dela erakutsi du. Europako Parlamentua kale arteen aintzatespena handitzeko helburua lortu nahi badu eta ekimen txosten bat aurkezten badu, litekeena da horrek eragin positiboa izatea tokiko kultur politiketan. Bestalde, Europako Batzordeak *kulturaren europar agenda mundu mailako bihurtzearen aroan* argitaratu du, honako hau lortzeko asmoz: Europan kultur aniztasuna eta kulturen arteko elkarrizketa sustatzeko; kultura sustatzeko, sormenaren eta berrikuntzaren eragilea den aldetik, Lisboako enplegurako eta hazkunderako estrategiaren esparruan; eta kultura Batasunaren kanpo harremanen oinarritzeko elementu bihurtzeko. Kale arteek definizioz dituzten helburuak eta

komunikatu horrenak oso antzekoak dira; hortaz, iritsi da garaia kale arteak gaur egungo kultura eztabaidetan eta kulturaren European aintzat hartuak izateko.

Yohann Floch

HorsLesMurs-eko nazioarteko harremanetarako arduraduna
Circostrada Network europar sarearen koordinatzailea

Circostrada sareko koordinatzailea da Yohann Floch. Kale-arten eta zirkuaren gaineko informazio, ikerketa eta trukaketarako Europako Plataforma da Circostrada (Frantzia du egoitza). Sare horrek Europako erakunde aktiboen laguntza jasotzen du Europako Batasunaren kulturaren arloan. Yohann Floch, aldi berean, HorsLesMurs-eko nazioarteko harremanen arduraduna da. Europako hainbat azterlan koordinatu ditu, bereziki Europako Parlamenturako *Street Artists in Europe* eta *The Circulation of Street Arts and Circus Artworks in Europe*. Lehenago, Union des Théâtres de l'Europe delakoarentzat egin du lan eta hainbat antzerki jaialdi koordinatu ditu. Bestalde, hainbat konpainiari lagundu die Frantzia, Espainia eta Kanada.